

Aseguruen konpentsazio partzuergoa

Aseguru etxeak jaramonik egin nahi ez dugunean

Autoa edo etxea babesteko aseguru egiten dugunean, kopuru gehigarri bat kobratu ohi digute eta horri esker, hondamendi natural bat gertatuko balitz, Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak hartuko luke bere gain kalte guztien ordaina emateko ardura

Uholdeak, ekaitzak, zikloiak edo lurrikarak ez dira egunero gertatzen, zorionez, baina tartean-tartean suertatzen dira halakoak ere, eta askotariko kalteak eragiten dizkiete pertsoneri eta ondasunei. Kalte horiei erantzuteko ardura erakunde publiko batek izaten du, Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak, hain zuzen. 2006. urteko gertakaririk ezohikoenak, Partzuergoaren Urteko Txostenak esaten duenez, uholdeak eta zikloi-ekaitz atipikoak izan ziren. Urte hartan, 42.000 kalte-ordain eskatu zituzten Espainian, eta 1990. urteaz geroztik, hori izan da eskari kopuru handiena, 1997koa salbu. Urte hartan, Delta ize-neko ekaitz tropikala gertatu zen. Kanariar uharteetan, eta ekaitzak eta

uholdeak izan zituzten Katalunian eta Galizian. Ondorioz, 43.000 eskari baino zertxobait gehiago izan ziren. Partzuergoak ematen dituen kalte-ordainak jasotzeko, ez da aseguru berezirik egin behar, bestelako hainbat aseguru egiten ditugunean ari gara ordaintzen Partzuergoari: autoaren edo etxearen aseguru egiten dugunean, bizitza aseguru edo istripuen aurkako kontratatzen dugunean, kopuru gehigarri bat eransten diote beti.

Nolakoak dira gehigarri horiek?

Aseguru poliza bat egiten dugun bakoitzean, beti-beti kopuru bat gehi-

tzen diote aseguruagatik beragatik ordaindu beharko dugunari. Enpresa horiek biltzen dute Partzuergoaren dirua, eta haren esku jartzen dute hilabetero-hilabetero. Horixe da Aseguruen Konpentsazio Partzuergoaren diru iturri nagusia. Auto baten aseguru egiten dugunean, adibidez, 5,41 euro ordaintzen ditugu Partzuergoarentzat. Etxebizitzaren eta etxejabe elkartearen aseguruetan, bizitza aseguruetan eta istripuen aurkakotan, kopurua ez da beti bera: zenbateko kapitalarentzat egiten dugun aseguru, halako portzentajea ordaindu beharko dugu. Etxebizitza batengatik, mila bakoitzeko, 0,09; bulego baten-gatik, mila bakoitzeko, 0,14... →





**2006AN 42000
KALTEORDAINI EGIN
ZIEN AURRE
PARTZUERGOAK**

Zer funtzio betetzen ditu?

Aseguruen Konpentsazio Partzuergoa enpresa-erakunde publikoa da, Espainiako Ekonomia eta Ogasun Ministerioari atxikia, eta urriaren 29ko 7/2004 Errege Legegintza Dekretuak arautzen du hark zein funtzio dauzkan. Askotariko estaldurak eskaintzen ditu Partzuergoak:

- ♦Ezohiko fenomeno edo arriskuek eragindako kalteei erantzuten die. Fenomeno naturalak bereizten ditu batetik, eta izaera politikoa edo soziala duten gertakariak dakartzaten arriskuak bestetik. Lehen sailean, adibidez, honako hauek sartzen dira: uholde ezohikoak (hor sartzen dira itsasoaren oldarrak eragindako kalteak), lurrikarak, itsasikarak, sumendien erupzioak, zikloi-ekaitz atipikoak, 135 km/h abiadura gainditzen duten haizeteak, tornadoak, eta gorputz sideralen eta aerolitoen erorketak. Bigarren sailean, berriz, terrorismo ekintzen kalteak hartzen dira aintzat, matxinadek, jazarraldiek, herri iskanbila eta bihurraldiek eragiten dituztenak, eta bake garaian armadak eta segurtasun indarrek sortzen dituztenak.
- ♦Ibilgailuek pertsoneri eta besteren ondasunei eragin dizkieten kalteen ordaina ematen du, betiere ibilgailuak ez badu aseguruurik, edo zein ibilgailu den jakiterik ez badago, edo lapurtua bada, nahiz eta aseguruia izan lehendik. Halakoetan, Partzuergoak ordaintzen dio biktimari, eta gero kopuru hori ordain diezaiola eskatzen dio istripua eragin duenari.

- ♦Pertsoneri eta ondasunei eragindako kalteak ordaintzen ditu, aseguru konpainiak erantzun ezin badio, konkurtso egoeran dagoelako (porrot eginda eta ordainketak etenda).
- ♦Aseguru konpainiek baztertzen dituzten gidariei babesia ematen die. Ibilgailuei aseguruia egitea derrigorrezkoa da, gidari guztiak eduki beharrekoa, eta gidari batek erakusten badu gutxienez bi aseguru konpainiak ezezkua eman diotela, orduan Partzuergoak egingo dio aseguruia.
- ♦Azkenik, Partzuergoa eta aseguru etxea ez badira ados jartzen nork ordaindu behar duen, Partzuergoaren ardurua izango da ordaina ematea, bai pertsoneri eragindako kalteengatik, bai ondasun galdu eta kaltetuengatik. Aurrerago frogatzen bada aseguru konpainiak ordaindu behar duela, itzuli egin beharko dio Partzuergoari hark lehena jarri duen diru kopurua, eta legeak ezartzen dituen interesak ere

ordaindu beharko dizkio, kalte-ordaina ordaindu zuen egunetik hasita.

Auto aseguruari, zergatik egin diezaiokete uko konpainiek?

Aseguruia egitea derrigorrezkoa da, bai, baina gidarientzat, ez aseguru konpainientzat. Merkatu librean agintzen du aseguru-jarduera pribatua, nahiz eta aseguru-jardueraren arauen pean dagoen. Inor ez dadin babesik gabe gelditu konpainia pribatuek ezezkua eman diotelako, arautua dago Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak emango duela aseguruia egiteko aukera.

Ezein konpainiak ez badio aseguruurik egiten gaztetxoari, zein urrats egin behar ditugu gurasoek?

Gidabaimena berriki atera duten gidariei oso erraz esaten diete ezetz aseguru konpainietan, batik bat 25 urtez beharakoei, eta zilindro-educiera handiko motorren aseguruak egin nahi dituztenei ere berdin. Jende horiek jotzen dute Partzuergora. Derrigorrezko aseguru bat

egitera joan eta konpainiak ezetza ematen badigu, eskatu behar diegu agiri bat egin eta idatziz bidal diezagutela. Bi aseguru etxeren agiriak baldin baditugu, Partzuergora jotzeko moduan gaude (telefonoz ere egin daitezke eskariak, bai derrigorrezko aseguruena, bai borondatezkoenak).

Ezohiko arriskuekin: dirua kobratzeko, hondamendi eremutat jo behar izaten dute leku kaltetua?

Ez, ez du zertan. Are gehiago, Espainiako Gobernuak erabakiko balu eremu batean hondamendi edo ezbehar nazionala gertatu dela, hori ez litzateke geratuko Partzuergoaren ardurapean; hala ere, arauak hori esan arren, Partzuergoa sortuz geroztik ez da gertatu halakorik.

Nola eskatu behar dugu kalte-ordaina?

Zazpi egun igaro baino lehen, idatziz zuzendu behar gatazka Partzuergoak gure erkidegoan edo probintzian duen



ordezkaritzari, nahiz eta aseguru konpainiaren bidez ere jo dezakegun Partzuergora. Aski da Ezbeharraren Adierazpen Orri bat bete eta aurkeztea. Aurrez, nahi izanez gero, 902 22 26 65 telefonora dei dezakegu (asegurudunei erantzuteko zerbitzua da). Hori guztia eginda ere, beti-beti komeini izaten da bestelako neurri batzuk hartzea. Partzuergoak, adibidez, aditu bat bidaliko digu, guk eta gure ondasunek zer kalte eta nolakoak izan ditugun egiaztatzeko, baina, askotan, ondasun horiek desagerrarazi egin behar izaten dira, ezinbestean. Horregatik, oso garrantzitsua da guztiguztiaren argazkiak egitea edo bideoz hartzea. Galde dezakegu ea baimenik ematen diguten adituak txostena egin aurretik konponketa lanekin hasteko, eta, ematen badigute, ongi gorde behar ditugu aurrekontuak eta lanen ordainagiriak.

Kalte guztiei erantzuten die?

Ez. Ondasun kaltetuek babesteko aseguru bat egin izan behar dugu lehendik. Horrez gain, Partzuergoak ez die erantzuten fenomeno ezohikotzat jo daitezkeen gertakari guztiei. Olatuek kalteak eragiten badizkiote beti uretan dagoen ondasun bati (berdin du erabat urperatua dagoen edo zati bat soilik duen urpean), Partzuergoak ez du bere gain hartuko horien ordaina, eta manifestazioetan edo huelga legezkoetan sor daitezkeen istiluen kalteak ere bazterrerara geratzen dira. Beste zenbait gertakari sortzen dituzten kalteentzat ere ez du ematen ordainik: presa bat apurtzen bada, lurpeko ur geruza igozten bada, luiziak gertatzen badira (baldin eta ez bada uholde ezohikoan ondorio). Energia nuklearraren eragi-

nez sortzen diren kalteak ere ez ditu barne hartzen.

Zein urrats egin behar dira arrisku ezohikoekin?

Garrantzitsua da kalte pertsonalen edo istripuen aurkako aseguru bat edukitzea, beste aseguru mota baten barne bada ere, edo pentsio plan bati lotuta. Eta edukitzeaz gain, jakina, kuota ordaindua izatea. Poliza egin eta zazpi egun igaro ondoren, eskubidea izango dugu Partzuergoak ematen dituen kalte-ordainak jasotzeko. Ezbeharraren Adierazpen Orrian egin behar da eskaria, eta honako dokumentu hauek ere aurkeztu behar ditugu:

- ♦Kalte-ordaina jasoko duenaren NAREN edo IFZren fotokopia.
 - ♦Kalte-ordaina jasoko duenaren bankuko datuak (kontu korrontearen hogeitazentziak).
 - ♦Polizak biltzen dituen baldintza berezi eta orokorren fotokopia.
 - ♦Kuota ordaindu dugula erakusten duen agiria.
 - ♦Kalte pertsonalik gertatu bada, ezbeharra zeren eraginez gertatu den frogatzen duen dokumentu kopia bat egin behar zaio, eta sortu dituen kalteen frogagarri diren dokumentuei ere bai.
- Inor hil bada, honako hauek bildu behar dira:
- ♦Heriotza agiria.
 - ♦Ezbeharra zeren eraginez gertatu den azaltzen duen dokumentazioa.
 - ♦Familia liburua eta testamentua. Testamenturik ez balego, oinordeko adierazpena behar da edo nabarmentasun akta.
 - ♦Ondoriotasun Zergaren Kitapena. +

